

2018. Ordenantza fiskalak. Behin betiko onarpena 2017ko abenduaren 22an izandako Bermeoko Udaleko Osoko Bilkuran BAO 2017/12/29. 247. zk., 6. zatia. Akats zuzenketak BAO 2018/01/24. 17 zk.

ERAIKUNTZA, INSTALAZINO ETA OBREN GANEKO ZERGEA ARAUTZEN DAUEN ORDENANTZA FISKALA

I- XEDAPEN OROKORRAK

1.-Artikulua

Udal honek, Tokiko Ogasunen abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauak aurreikusitakoa eta Eraikuntza, Instalazino eta Obren ganeko Zergeari buruzko Bizkaiko 10/1989 Foru Arauak ezarritakoaren arabera eskatuko dau zerga hori, ordenantza fiskal honetan xedatutakoa kontuan izanda.

2.-Artikulua

Hau Ordenantzea udal mugarte osoan aplikauko da.

II-ZERGA EGITATEA

3.-Artikulua

Urigintzako obretarako lizentzia behar dauen edozein eraikuntza, instalazino edo obra egitea da zerga egitate, lizentzia hori jaso nahiz jaso ez, eta udalari jagokonean lizentzia emotea. Bardin aurretiazko komunikazinoa edo aitorten erantzulea aurkeztea eskatzen danean, beti be, lizentzia emotea edo jardurearen kontrola eroatea udalari bajagoko.

4.-Artikulua

Besteak beste, honako honeek dira zergapeko egintzak:

- 1.- Moeta guztietako eraikin edo instalazino barriak egiteko obrak.
- 2.- Moeta guztietako eraikuntza edo instalazinoak handitzeko obrak.
- 3.- Egiturea ikutzen daben aldaketak edo barrikuntza obrak egitea, moeta guztietako eraikin edo instalazinoetan.
- 4.- Kanpoko itxurea aldatzen daben obrak egitea, moeta guztietako eraikin edo instalazinoetan.
- 5.- Eraikinaren barruko taxurea aldatzen daben obrak, edozein dala be, eraikinaren erabilerea.



6.- Behin behineko izakeraz egin behar diran obrak.

7.- Zerbitzu publikoak instaletako obrak.

8.- Lur mobimentuak, esate baterako, lur erauzketak, hondeaketak eta betelanak, ez bada, horrelako beharrak urbanizazino eta eraikuntza proiektu onetsi edo baimenduetan zehaztuta eta programauta dagozala.

9.- Eraikuntzak behera botatea, hur-hurreko aurriaren deklarazinoa daukienak izan ezik.

10.- Lurpeko instalazinoak: aparkalekuak, industria, merkataritza edo lanbide jardueretakoak, zerbitzu publikoenak edo lurrazpiari emoten jakon beste edozein erabilerakoak.

11.- Propaganda kartelak herri bideetatik ikusteko eran ipintea.

12.- Ahalmen ekonomikoa agerian ipinten daben baliabide ekonomikoen inbertsinoa eskatzen daben obra, eraikuntza eta instalazino guztiak, obra lizentzia edo urigintzako lizentzia behar dabenean.

13- Obra txikiak

5.-Artikulua

Ez dira egongo zergapean udal honen jabariko higiezinetan egiten diran eraikuntza, obra eta instalazinoak, beti be, oberearen jaubea Udala bera bada.

III-SALBUESPENAK

6.-Artikulua

1.- Zergea ordaindu beharretik salbuetsita dagoz Estaduaren, Autonomia Erkidegoen, Bizkaiko Lurralde Historikoaren edo toki-erakundeen jaubetzako era guztietako eraikuntza, instalazino edo obrak, zerga horri lotuta egonda, zuzenean errepide, trenbide, portu, aireportu, obra hidrauliko, biztanle-guneen saneamentu eta horreen hondakin-uren saneamenturako izango diranean, nahiz eta euren kudeaketea Erakunde Autonomoek egiten dabenean, bai inbertsino barrikoak zein artapenekoak izan.

2.- Eliza Katolikoa, Estaduak eta Egoitza Santuak gai ekonomikoei buruz 1979ko urtarrilaren 3an eginiko Itunean ezarritako moduan (2001eko bagilaren 5eko Aginduaren arabera; haren bidez argitzen da zelan agertzen dan Eraikuntza, Instalazino eta Obren ganeko Zergea Estadu espainiarrak eta Egoitza Santuak gai ekonomikoei buruz 1979ko urtarrilaren 3an eginiko Itunaren IV. artikuluko 1. idatz-zatiko b) letran).



IV- SUBJEKTU PASIBOAK

7.-Artikulua

Zerga honen subjektu pasiboak dira, zergadun moduan, Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 34.3 artikuluan aitatzen diran pertsona fisiko edo juridikoak eta erakundeak, eraikuntza, instalazino edo obrearen jaube diranean, beharra egiten dan higiezinaren jaubea izan edo ez.

Aurreko paragrafoan aurreikusitako ondorioetarako, eraikuntza, instalazino edo obrearen jaubetzat hartuko da behar honeen gastuak edo kostuak jasaten dauzana.

Eraikuntzea, instalazinoa edo obrea subjektu pasibo zergadunak egiten ez badau, haren ordezeko subjektu pasiboak izango dira erainkuntzea, instalazinoa edo obrea egiteko lizentzia eskatzen dabenek edo aitorten erantzuleak zein aurretiazko komunikazinoak aurkezten dabenek eta eraikuntzak, instalazinoak eta obrak egiten dabezanek.

Ordezko subjektu pasiboak ordaindutako zerga-kuotearen zenbatekoa eskatu ahal izango deutso zergadunari.

V- ZERGA OINARRIA

8.-Artikulua

Eraikuntzearen, instalazinoaren edo obrearen benetako kostua izango da zerga oinarria; benetako kostu hori beharra burutzeko kostua da.

Ez dira sartuko Zerga Oinarrian ez Balio Erantsiaren ganeko Zergea, ez araubide bereziko antzeko zergarik, ez tasarik, ez prezio publikorik, ez eraikuntzea, instalazinoa edo obreagaz zerikusia daukan ondarearen ganerako toki prestazinerik, ez profesionalen ogibidesaririk, ez kontratariaren industria mozkinik, ez burutzapen materialaz kanpoko ganerako ezelalako kontzepturik.

Udal lizentzia barik egindako eraikuntza, instalazino eta obren kasuan, zerga oinarria udal administrazinoak ezarritakoa izango da.

VI- ZERGA KUOTEA

9.-Artikulua

Zerga kuotea zerga oinarriari karga tasea aplikatuta ataratzen dana da. Karga tasa eranskinean ezarrita dagoana izango da.

10.-Artikulua

Aurreko artikuluaaren araberrako kuotan udalak hobari honeek ezarten dauz:



a) Zerga honen % 30eko hobaria izango dabe gizarte-inguruabar historiko-artistiko bereziak dirala eta, edo enplegua zein ostatu igarokorra sustatu beharra dala eta, interes berezikotzat edo udalerraren onurakotzat jotzen diran eraikuntza, instalazio edo obrek.

Frogarako datu zehatzak aurkeztu beharko dauz interesdunak eta Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrari jagoko hobari eskubidearen deklarazioa egitea. Obrea amaitu eta gero aplikatuko da hobaria azken kostua aurkeztuta zergearen likidazio osagarria edo behin-betikoa egiten danean.

b) Zerga honen kuotan % 50aren hobaria izango dabe mobiteko % 65aren ezintasuna daukien elbarrituak heltzeko eta bertan bizitzeko baldintzak hobetzeko higiezinaren elementu pribatiboetan egindako obrek, etxebizitzea egokitzeko, bertan bizi diralako ohiz elbarrituek eta euren beharrianetara irisgarritasuna hobetu eta etxea egokitu beharra dagoalako.

Hobaria emoteko baldintzea, indarreko legediak derrigorrez ezarritako obrak ez izatean datza.

Hobari hau hartu ahal izateko subjektu pasiboak ziurtatu egin beharko dau daukan ezintasun gradua, jagokon aginteak emondako agiri bidez.

Obrea amaitu orduko eskatuko dau hobaria subjektu pasiboak eta onartu ostean, obrea amaituta azken kostua aurkezten dauanean zergearen likidazio osagarria edo behin betikoa egiten danean aplikatuko da. Hobaria onartzea alkatetzari jagoko.

c) Zerga honen kuotan % 30aren hobaria izango dabe etxebizitzetako jabe elkarteek igogailua lehen aldiz jarteko edo kolarrean irisgarritasuna hobetzeko eskatutako obra lizentzietan, beti be, auzoan mobiteko % 65aren ezintasuna daukan elbarrituren bat dagoanean.

Hobari hau hartu ahal izateko subjektu pasiboak ziurtatu egin beharko dauz elbarrituaren ezintasun gradua jagokon aginteak emondako agiri bidez eta auzokidea dala errolda agiri bidez.

Obrea amaitu orduko eskatuko dau hobaria subjektu pasiboak eta onartu ostean, obrea amaituta azken kostua aurkezten dauanean zergearen likidazio osagarria edo behin betikoa egiten danean aplikatuko da. Hobaria onartzea alkatetzari jagoko.

Aurreko ataletan agertzen diran hobari fiskalak ez dira metagarriak, ezta, batera aplikagarriak be .

d) 2013ko apirilaren 11ko sutean kaltetutako higiezinak zaharberritzeko, birgaitzeko edo eraikitzeko obretan % 100eko hobaria eukiko dabe.

Obra lizentzia eskariagaz batera eskatu ahal izango dabe hobaria, beti be, kaltetua izanaren ziurtagiria aurkeztuta.



Sutearen ondorioz partzialki bakarrik edo sua amatatzeko botatako urak kaltetutako kasuetan egin beharreko obrak dirala-eta kaltetutakoak konpontzeko ez diran beste batzuk be egiteko aprobetxatuz egiten badira, horreek ez *dabe* hobaririk eukiko. Halanda ze, horrela bereiztuta deklaratu beharko dabe interesdunek.

e) Zerga kuotaren %50eko hobaria Alde Zaharrean jarduera barria jarteko beharrezkoak diran obratan, beti be, jardueraren aurre komunikazinoa aurkeztuta euki ezkeru.

Hobaria zuzenean aplikatuko da behin-behineko kitapenean, lizentzia eskarian espresuki hobaria egiteko eskaria eta baldintzak betetzen dirala jasota dagoanean.

Geroagoko hobari eskaria izango balitz, bereziki onartu beharko da eta behin betiko kitapenean aplikatuko da eta jagokon itzulketa eragingo dau. Kasu horretan ez da etengo behin-behineko kitapena kobratzeko prozesua.

Hobari hau eta a) atalekoa ezin izango dira batera aplikatu, bata bestea kentzen dau.

VII- SORTZAPENA

11.-Artikulua

Eraikuntzea, instalazinoa edo obrea hastean gertatuko da zegoaren sortzapena, lizentzia jaso ez bada be.

VIII- KUDEAKETEA

12.- Artikulua

Lizentzia emoten danean edo aitorten erantzulea zein aurretiazko komunikazinoa aurkezten diranean, edota, eskatu barik ezta emon lizentzia hori eta bai aurkeztu aitortena edo komunikazinoa, eraikuntzea, instalazinoa edo obreari hasikerea emoten bajako, konturako behin-behineko kitapena egingo da, eta holan finkatuko da zerga oinarria:

- a) Interesdunek aurkeztutako aurrekontuaren arabera, aurrekontu hori elkargo ofizialaren onikusia badauka, halan egitea arauzko eskakizuna danean.
- b) Udal teknikariek proiektuaren inguruan kalkulaturako kostuaren arabera.

13.-Artikulua

Lizentzia emon eta gero, edo aitorten erantzulea zein aurretiazko komunikazinoa aurkeztu ondoren hasikerako proiektua aldatuko balitz, beste aurrekontu bat aurkeztu beharko da, behin behineko kitapen barri bat egiteko, aurrekontu aldatuak jatorrizkoa zenbateraino gainditzen dauen kontuan hartuta.

14.-Artikulua



1.- Eraikuntzea, instalazioa edo obrea behin amaitutakoan, eta haren benetako kostua kontuan hartuta, Udal Administrazioak, administrazio-egiaztapen egokia egin ostean, beharrezkoa bada, zerga oinarria aldatu eta behin betiko likidazioa egingo dau eta subjektu pasiboari jagokon kopurua oradainarazo edo itzuliko deutso.

2.- Aurreko atalean ezarri danaren ondorioetarako, obrea amaitu edo behin behinean jaso eta hurrengo hilabetean, inguruabar horren aitortpena aurkeztuko dau zergadunak. Obrea zuzendu dauen teknikariaren ziurtagiria erantsiko da, haren lanbide alkargoak ikus-onetsita, beharrezkoa izan ezker. Agiri horretan obren kostu osoa ziurtatuko da.

15.-Artikulua

Zergearen likidazioari jagokonez, administrazioaren isiltasun positiboaren bidez emoten diran lizentzien ondorioak berariaz emoten diran lizentzienak eurak izango dira.

16.-Artikulua

Lizentziaren titularrak edo aitortpen erantzulea zein aurretiazko komunikazioa aurkeztu dauen zergadunak baimendu diran obrak, erainkuntzak edo instalazioak ez burutzea erabagiten badau, idatziz jakinarazo beharko deutso Udalari eta honek behin behineko likidazioa itzuliko deutso, edo, bestela, osorik itzi balio barik.

IX- AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau 2013kon onartu da behin betiko.
201..kon sartuko da indarrean eta halan jarraituko dau aldatzea edo indar barik iztea erabagi arte.

ERANSKINA

Karga tasa: %5

